



**ARAUTEGIA**  
**SASKIBALOIA 2023**

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak saskibaloiko EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, ERRENDIMENDUARI EKITEKO IBILBIDEAN ALEBIN MAILAN, Euskadiko Saskibaloia Federazioarekin lankidetzan, 2023ko maiatzaren 28 eta ekainaren 3 eta 4ean, Ordiziako Majori Udal Kiroldegian (Gipuzkoa). Hauxe duzue jokoen araudia:

**1. JOKO SISTEMA**

Itzulera bateko liga.

Partidak hiru zatiko bi partetan banatuko dira. Zati bakoitza 8 minutukoa izango da, lehenengo zazpi minutuak denbora jarraian eta azkenengoan denbora eten egingo delarik. Jaurtiketa libre zein denbora etenetan erlojua geldituko da.

Epaileak izango dira denbora neurtuko dutenak.

Azken zatian, lehenengo bost minutuak denbora jarraian eta azkeneko hiruretan denbora eten egingo da.

Luzapenetan lehenengo hiru minutuak jarraian jokatuko dira eta azkeneko bostetan denbora eten egingo da.

Epaileak alboko eta sakoneko sakeetan baloia ukitzeko beharrik ez du izango. Faltetan, aldaketen ondoren eta denbora etenetan bai ordea.



## **2. TALDEEN OSAERA**

Dagokion lurraldeetako irabazle suertatutako taldeak jokatu dute.

Lurralde bakoitzetik honako talde hauek parte hartuko dute:

Errendimenduari ekiteko ibilbidea: neska eta mutil talde bana, alebin mailan.

Talde bakoitzak gutxienez 10 eta gehienez 12 jokalaria aurkeztu beharko ditu partida bakoitzerako, eta gehienez 3 teknikari.

Talde batek gutxienez 10 jokalaria aurkezten ez baldin baditu, partida berdina jokatu da. Parte hartzeko baldintzak betetzen dituen taldeko ordezkariak, instalazioan dagoen Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzako ordezkariak emango dion fitxa bete beharko du. Adostasuna emanaz gero eta partida baliozkotzat ematen bada, horren emaitza behin betikoa izango da. Adostasuna lortzen ez bada, eta araua bete ez duen taldea irabazlea izan bada, azken emaitza 2-0ekoa izango da, arauak adierazten duen parte-hartzaileen kopurua aurkeztu duen taldearen alde. Partidaren emaitza araua bete duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

Kirolariren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko arduradunari aldeztu aurretik abisatuta. Ahalik eta lasterren, Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzatik, zerrendan agertzen ez den pertsonaren taldeko kide dela egiaztatuko du. Zerrendan agertzen ez den pertsona taldeko kidea ez bada, jokalariren zerrenda okertzat emango da, eta arau-haustea egin duen taldeak partida



## **EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** **XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



galduko du, baldin eta emaitza irabazia suertatzen bada, 2 – 0 emaitzarekin. Partidaren emaitza arau-haustea egin ez duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Parte hartzen duten taldeen osaera Foru Aldundietan inskribatuta dagoena izango da. Ez da onartuko sailkatutako erakunde bereko lizentzia eduki arren, Euskadiko Eskola-Kirol Jokoetarako sailkatutako taldekoak ez diren jokalarien parte hartzea. Lege hori mantendu egin beharko da, nahiz eta egoera hau beste lurraldetan jokatu diren lehiaketetan baimendua izan.

2011an jaiotako jokalariek bakarrik hartu dezakete parte.

Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzeko saihesteko. Kasu honetan, txapelketaren webgune ofizialean bisitari talde bezala azaltzen denak, bigarren janzkera erabili beharko du.

### **3. JOKO ARAUAK**

Kreditatutako jokalariek talde bakoitzak jokatzeko dituen partida guztien lehen bost denboretatik bitan jokatu beharko dute gutxienez.

Entrenatzaileak denbora bakoitzeko hasierako bosta berretsi beharko dio mahaia. Jokalariak zelaian ez badatoz bat emandako bostarekin eta errorea denbora hasita dagoela antzematen bada, entrenatzaileak falta teknikaria jasoko du zigortzat, errorea antzematen den unean. Behar bezala jokatzeko ez duen jokalaria ordezkatu egin behar da eta bi jokalariei (ordezkatuari eta ordezkoari) denbora hori jokatzeko emango zaie.

Hutsarteak honela emango dira:

- Parte bakoitzeko (hiru denboratan) bi hutsarte eman daitezke, edozein momentutan.
- Aparteko denbora bakoitzean erregistratutako hutsarte bat.



## **EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** **XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



Erabiltzen ez diren erregistratutako hutsarteak ezin dira bigarren zatira edo aparteko denborara pasatu.

Lehen hiru denboretan ezin da ordezkapenik egin, halakoetarako izan ezik:

- Lesionatutako jokalaria bat ordezkatzeko.
- Deskalifikatutako jokalaria bat ordezkatzeko.
- 5 falta pertsonal egin dituen jokalaria bat ordezkatzeko.

Jokalaria bakoitzak lehen bost denboretan gutxienez bi denbora oso jokatu behar ditu (denbora osoa denbora hasten denetik amaitzen den artekoa da), salbuespen hauetan izan ezik:

- Lesionatutako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu lesionatu egin delako, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.
- Asistentzia jasoz gero ez dago jokalaria ordezkatzeko betebeharririk, betiere jokoa ez bada bi minutu baino gehiagoz eteten.
- Deskalifikatutako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu deskalifikatu egin dutelako, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.
- 5 falta pertsonal egindako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu 5 falta pertsonal egiteagatik, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.
- Jokalari lesionatua, deskalifikatua eta 5 falta pertsonalengatik kanporatua ordezkatzeko duen jokolariaren kasuan, jokaturako denbora ez zaio denbora osotzat onartuko.

Jokalaria bakoitzak lehen hiru denboretan denbora oso batez egon behar du ordezkaren aulkian (denbora osoa denbora hasten denetik amaitzen den artekoa da), salbuespenik gabe. Jokalari lesionatua, deskalifikatua edo 5 falta pertsonalengatik kanporatua ordezkatzeko duen jokolariaren kasuan, jokaturako denbora ez zaio ordezkaren aulkian denbora oso bat egon da bezala onartuko.

Arbitroak ez du baloia ukituko banda eta hondoko sakeetan, faltak, ordezkapenak eta hutsarteak ematen direnean ezik.



## **EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** **XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



Kanasta egin dioten taldeak hutsartea eskatu dezake.

Denbora bakoitzean talde batek 4. falta gainditzen duenean, bi jaurtiketa libre emango dira. Beraz, denbora berri bakoitzean taldearen faltak zerotik hasita zenbatuko dira. Laugarren epealdiko faltak, ordea, aparteko denboretarako metatuko dira.

Arbitroak ez du baloia ukituko banda eta hondoko sakeetan, faltak, ordezkapenak eta hutsarteak ematen direnean ezik.

Baloia 24 segundoz eta 8 segundoz edukitzeko arauak aplikatuko dira.


Partida bat jokatzean talde batek markagailuan 50 puntuko aldea ateratzen badio besteari, partida bukatutzat joko da, Akta ofizialak une horretan adierazten duen emaitzarekin. Geratzen diren minutuekin beste topaketa bati ekingo zaio, erlojua eten gabe, aktan eta sailkapenean inolako eraginik izan gabe, salbuespen hauek kontuan hartuta:

- Faltak zenbatzen jarraitu da, aktan jaso gabe.
- Deskalifikatzeko moduko faltaren bat egonez gero, Kirol Batzordearen esanera jarriko da.

Edozein defentsa mota baimenduko da, ez da onartuko jokalaria batek 5 seg baino gehiago mugatutako eremuan defendatzen duen jokalaria ez dagoen bitartean egoten bada. Arauz kanpoko defentsa bi jaurtiketa libre eta baloi jabetzarekin zigortuko da. 3 puntuko marra ezartzen da:



## EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Tarteen arteko atsedetak: 1go eta 2., 2. eta 3., 4. eta 5., 5. eta 6. tarteetako atsedetan denbora minutu batekoa izango da. 3. eta 4. tarteetan bost minutukoa.

Jokorako baloi ofiziala Baden markako BX 345 (bi koloretakoa) edo BX 110 eredua izango da.

### 4. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

### 5. AZKEN OHARRAK

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa



## **EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** **XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2023ko otsailaren 6ko AGINDUA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2023ko otsailaren 10eko EBAZPENA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Euskadiko Saskibaloï Federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.